



ZE ONDO EGITEN DUZUN!

Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu

Besteek egiten dutena errespetatzen eta baloratzen ikastea.
Norberaren trebetasunak adierazten laguntzea.

Iraupena

Jarduera hau saio bakar batean egiteko dago pentsatuta. Dena den, ikasturte osoan zehar baliatuko dugu jarduera honi esker ikasitakoa.

Beharko dugun materiala

Panpina bat edo txotxongilo bat.

Hezitzailearentzako oharrak

Jarduera hau egiteko, gelan daukazuen maskota erabil dezakezue, edo edozein panpina edo txotxongilo. Baliagarria izango zaigu autoestimua erekin, besteak baloratzearekin eta abarrekin lotutako gaiak lantzeko, panpinari buruz hitz egitean neska-mutilak errazago askatuko direlako.

1. fasea: Garapena

Esan ikasleei biribilean esertzeko. Panpina atera.

- Panpina berria baldin bada, aukeratu izen bat denen artean. Gero, ikasleak agurtu, eta bakoitzak bere izena esan dezala.
- Panpina gelan ohikoa bada, esan panpinak ez duela oso buru ona, eta mesedez bakoitzak bere izena esateko.

Ondoren, eta panpinaren bidez beti, esan oso garrantzitsua dela bakoitzak bere izena izatea, horrek bereizi egiten gaituelako beste pertsonengandik eta bereziak egiten gaituelako. Eta gauza bera gertatzen dela gure ezaugarri eta trebetasunekin. Esan panpinak gauza asko egiten dakiela, baina gehien gustatzen zaiona dela besteek ondo zer egiten duten jakitea eta esatea:

Ze ondo ----- (ekintza) duzun!

Izan ere, hori jendeari maitasuna adierazteko modu bat da.

Adibide gisa, panpinak hainbat gauza egingo ditu (abestu, salto egin...), eta, egiten duen bakoitzean, ikasleek txalotu egingo dute, eta esango diote: Ze ondo abesten duzun! (edo dagokiona).

Gero, ikasle bakoitzak pentsa dezala zer egiten duen berak ondo, eta esan dezala. Ondoren, gainerakoek txalo egingo diote, eta esango:

----- (izena), **ze ondo ----- (ekintza) duzun!**

Bukatzeko, hausnar dezagun

Elkarrizketa bultzatuko dugu taldean, besteak beste galdera hauek eginez:

- Ikusi duzue nola pertsona bakoitzak izena duen eta trebetasunak dituen?
- Gustatu al zaizue gauzak ondo egitean beste txaloak jasotzea?
- Gustatzen al zaizue zuen lagunak gauzak ondo egiten ikustea? Ondo iruditzen al zaizue besteak animatzea, gauzak ondo egiten dituztenean?

Benetako superheroiek errespetuz eta goxotasunez tratatzen dute jendea.